

1995eko martxoak 17
269. zenb.

PRESS

ARRASATE


MONDRAGON ELORZA ROSA
HERRIKO PLAZA (ARRASATEKO UDALA)
ARRASATE: 9
0



Denok
takarraran!

ARTEszena-k aurkezten du

MEPHISTO



Martxoak 24 eta 25

Gaueko 10.30etan • Amaia Antzokian

Sarrera: 700 PTA • Gazte Txartelarekin: 500 PTA



Arrasateko Udala
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Euskara jalgi hadi plazara

Bernat Etxeparek halaxe esan zuen duela 450 urte. Eta horixe da aurtengo korrikak bere 9. edizioan lematzat hartu eta lau haizetara hedatzen ari dena.

Lehenengo igandean, Andoni Egañak eta Benito Lertxundiren kantuak lasai eta goxo entzuten ari nintzen hartan, zera bururatu zitzaidan: zer esango luke Etxeparek gaurko egoeraren aurrean eta jada zaharkitu eta gainditua egon beharko zukeen bere eslogana oraindik indarrean dagoela ikusirik?

Orduan, euskara ahozko hizkuntza hutsez, denek eguneroko harremanetarako erabiltzen zutena; baina ez zuen nortasun politikorik ezta kulturalik ere, hau da, goi-mailako ekintzetarako ez zen aintzakitatzat hartzen. Kultura gaztelera eta frantsesez zen. Euskara, berriz, basa eta arautezina izan da, testu idatzietarako erabilteztina, alegia, garai guztietako erdal ikerlari askorentzat.

Gaur, eta 450 urteotan jasandako mila gorabehera, azpikeria, eraso eta traizioren ondoren, frogatu du araugarria dela, baita gure kulturaren eta jatorrizko izaeraren igorle ezin hobea eta, noski, bizitzaren edozein arlotan erabilgarri aparta dela ere. Duen nortasun politikoa, partiduen interes partikularren arabera izaten da sarriegi: pentsatzen al dute delako partiduetakoek hizkuntzaren iraupenean ala berorren eta bere hiztunen eskubide naturaletan? Behin eta berriz esaten digute ama hizkuntzat gaztelera dutenak ulertu eta errespetatu behar ditugula. Baina nola bideratu hori

guk mendetan zehar eta oraindik gaur ere guganako errespetorik somatzen ez dugunetan? Zergatik eskatzen eta exigitzen digute behin eta berriz guri etengabe ukatzen digutena? Bakoitzak bere kabirantz errazten du, benetan zerbait egin nahi duenari eskuak lotu ondoren, jakina. Normalizaziorako bidea hain dugu eskura baina ibiltezin jartzen dizkiguten traben erruz ezen askotan ittota eta etsita sentitzen baitudan ene burua.

Ziur naiz, ordea, zenbait gauzak poztuko lukeela gure Etxepare zaharra. Poztuko luke gaur egun euskara irakaskuntzako maila guztietan ikusteak, nahiz eta ez egon nahiko genukeen neurrian, ezta gutxiagorik ere. Poztuko luke, halaber, euskaraz idatzirik dagoen liburu mordoxka ikusteak. Eta, zalan-tzarik gabe, poztuko lukete euskararen oinarri inguruan sortzen diren kilometrotako ibilal-

diek, oinez eta euskaraz... baita gaur bertan bere lehen kilometroak egiten ari den korrikak ere. Izan ere, euskarak merezi duelako, behar dugulako eta behar gaituelako, poztuko luke gure erretore zaharra berak utzitako ordezkioa korrikak ezezik euskalzale askok jaso dugula jakiteak, euskarak plazan behar duelako beti.

KARMELE PEREZ



SENDATZAILEA

Consuelo Uriberalzo Gomez

- Masailari magnetista
- Energia-transmisioa
- Gaitz guztien tratamendua eskuak gainean ezarritik

Astelehen eta ostegunetan
15'00etatik 19'00etara

Gazteluondo, 9 behea
S. F. X. Ikastola parean
Arrasate ☎: 943-79 22 86


Memesa
79 42 22



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaurerriak Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

• **ARRASATE PRESS** •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnua: 77 05 65. Faxes: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Maria Agirre. **Kazetariak:** Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Hizkuntz arduraduna:** Arantza Ozaeta. **Publizitatea:** Jaxone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube eta Itsaso Errasti (Tfnua: 77 08 15). **Maketazioa:** Golo Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanca Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jaurregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopti, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubizarra, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: AEK

Ni ere gehitzen naiz

Atxekimendu garaian gaude, non garai haue- tan norbaitek orri pusketa batean lerroalde batzuk idaz- ten ditu, gero berehala bere idatziari atxekiak bilatzeko. Bertako edukinak ez du asko axola, soilik egilea mota poli- tiko mugatu bateko kidea izate- a, kazetaria izatea, gorputz polizial bateko kidea izatea, enpresarioa izatea, alkatea, zinegotzia, abarkaria, taber- naria... Kontuan hartu behar- reko gauza bakarra zera da: bere lerroaldeetan EAJ, HB, KAS eta orokorrean EZKER ABERTZALEAREN zikin- keria aipatzea. Horregatik, edozein unetan gehitu nahi ez dudane- kin ez gehitzeko eta gehitzeko aukerarik ez emateko norekin gehitzen naizen argitu nahi dut, eta hontan, inoiz gehitu behar badidate nerekin kontu dezaketela jakin dezaten. Ezer gehiagorik gabe, preso kolektibo bate- kin gehitzen naizela denok jakin dezaten nahi dut, bertako gizon ta emakumeekin, edozein zertzeladan ta edo- zein ordutan bere betetasu- nean identifikatuta; ahal duten guztia sakabanatuta ere. Espetxeetako ateetaraino bideratzen dieten errepidean irensteko bere irrifar hobe- renarekin jasten direnekin gehitzen naiz; hain da beraien indarra non banatzen gaituen kristal blindatua ez da nahi- ko gu beraietaz betetzea eki- ditzeko. Oinazetuen oihuetara gehitzen naiz, interrogato- rioaren hurrengo sesioa eki- ditzeko ikustezin bilakatu nahi dutenekin; ni ere hamar egun barru saiatu nintzen eta ulertzen dut. Egunez egun kalean pake justu baten alde borrokatzen dutenekin gehi- tzen naiz; jakinda gainera, aurrean etsairik basatiene bere fusilaren bakotxatik beraien gorroto guztia jaurtikitzen

duela beraien gezurra beti eratzeko armen indarrean babesten den Estatu ustelkor hau ontzat ematera jarkitzen direnen aurka. Askatasunaren bidera bideratzen gaituen bide horretan destinoak kunatan botata utzi duen semearen- gatik, anaiarengatik, aitaren- gatik, amarengatik, laguna- rengatik negar egiten dute- nekin gehitzen naiz; berai- kin negar ez egiteagatik bar- kamenak eskatzen diet baina nere begiak hainbeste minez lehorrak daude. Hogeit ta hamar bizitzeko zazpi egu- neko soldatak ordaintzen die- ten langabetuekin gehitzen naiz. Besteen lanari esker aberastu den enpresarioak pentsio gisa ematen dien limosnatik bizitzera jarkitzen direnekin gehitzen naiz. Bere zirrikituaren inpultsora inon- go eskrupulorik gabe jokatz- en duten elementuen eskuetan erori diren emakume bortxa- tuen oihuei gehitzen naiz ta hau gauzatzen denean nere gizonaren baldintzak lotsatzen nau; ahal beren oihua gure kontzientzietan salgai bat bezala barneratzen den era horretan bizi garen gizarte matxista honetan non giza- banako balioa sexoan oina- rritzen den eta ez pertsona bakoitzaren balioan denak batera lazdura hau gainditu dezagun. Intsumisiora gehi- tzen naiz. Bere bizitzako ametsa Itoitz-go urtegian ikuste- ra jarkitzen direnei gehitzen naiz, eta inongo zalantzarik ez geratzeko, beti gehitzen ari direnak inoiz gehitzen ez diren guztira gehitzen naiz: bizi- tzara, pakera, nere herrira ta GORA EUSKADI ASKA- TUAREN! oihua gure etor- kizunaren bandera izan dadin zuen ahotsa jartzen duzue- ni.

Horregatik eta horretara- ko, ni gehitzen naiz.

PAKO ROBLES
(EUSKAL PRESO POLITIKOA)

Gaizki ulertuak argitu nahian

Aupa irakurle! Pasa den astean AEDren ingu- ruan gabiltzan gazteok komu- nikabideetara ohar bat bida- li genuen, egin behar genuen asanbladaren berri eman nahiez. Ohar horren bitartez nahiz AEDn, nahiz hortik kanpo lan egiteko gogoz dagoen edozein gazteri par- te hartzeko aukera eman nahi genion.

Eskutitz honen xedea bidalitako oharraren ingu- ruan izandako gora beherak argitzea da.

Dirudienez gaizki uler- tuak egon omen dira Arra- sateko Gazte Asanbladaren pareko zerbait izan ziteke- lakoan, AGAKOren pare- koa alegia. Gure aldetik inoiz ez da egon, ez eta egongo ere horrelako asmorik, soilik funtzionatzeko edo ihardu- teko modu gisa, sortu dai- tezkeen lantaldeez gain, noiz behinkako asanbladak egitea egokia aurkitu dugula esan behar. Honela, interesgarria ikusten dugu Gaztetxeare- kin, nahiz beste edozein gaz- te talderekin (Skaut, Besai- deko Gazte Ekintza...) elkar- lanean aritzea. Hari honetan aurrerantzean gure arteko harremana garatzeko asmoa azaldu nahi genuke.

Badago non lan egin, gure helburua euskara bultzatzea litzateke batez ere, horrega- tik uste dugu ez diogula ino- ri "lanik" kendu behar eta askoz hobe litzatekela elka- rrekin lan egitea (talde guz- tien artean alegia).

Hemendik aurrera gaiz- ki ulerturik gerta ez dadin, egingo ditugun asanbladei "Euskeraren Aldeko Gazte- en Asanblada" deituko die- gu, bertara edozein azal dai- tekeelarik.

Besterik gabe gure herria euskalduntzeko asmorik duen edozein gazteri, hileko

lehen ostiralean arratsaldeko 7.30etan burutuko ditugun asanbladetan leku bat bere zain duela gogorarazi nahi genioke.

GAZTEAK-AED

• • • •

Eskerrak emanez:

Ikasketa bidaia bat antola- tu behar denean denok dirua nondik atera dezakegun pen- tsatzen ari gara, helburua dirua ez eskatzea eta ekintza berriak edo ez ohizkoak egi- tea izanik.

Honetan geundela, 2. Ba- txiler Orokorreko ikasle baten aitak, J.A, Juldainek hain zuzen ere, saskibaloi partidu bat antolatzea proposatu zigun. Ideia ona iruditu zi- tzaigun eta aste honetan ber- tan, martxoaren 15ean, par- tidua izan dugu. Lerro hauek idazterakoan ez dakigu zer nolako harrera izango duen, baina gure helburua hainbat pertsona eta erakunderi eske- rrak ematea da. Urbina-Mal- tzaga eta Vital Kutxa saski- baloi taldeei partidua joka- tzeagatik; Arrasate eskubaloi taldeari euren entrenamendu saioa aldatu eta Iturripeko kantxa libre uzteagatik; AUKEArik Iturripeko kirol- degia erabiltzeko baimena emateagatik; OKENDO KIROLAK dendari megafonia eta arbitroa ordaintzeko eman digun diru laguntzaga- tik; OPEL garajeari publizi- tatea egiteko kotxea uztea- gatik.

Eta gurekin antolatze lanetan ibili zaretenoi, MILA ESKER.

ALMENEKO 2. B.O.EKO
IKASLE ETA IRAKASLEAK

Parte hartuko duzu Korrikan?



Itsaso Errasti
Ikaslea
(9 urte)

Bai, La Merced nire ikas-tetxekoekin hartu behar dut parte, goiz -goiz jaikiko naiz korrika egiteko.



Sandra Tailledo
Ikaslea
(17 urte)

Oraindik ez dut pentsatu baina ez dut uste. Hala ere, Korrika moduko ekintzak egitea ondo iruditzen zait.



M^a Luisa Agirre
Etxekoandra
(58 urte)

Ez dut parte hartuko, sekula ez dut parte hartu, nahiz eta ondo pentsatu horrelako ekintzak egitea. Zahar samarra nagoela uste dut. Nire etxe-koak, ostera, joango dira eta ni ikusteko jaikiko naiz.



Juan Sanchez
Ikaslea
(15 urte)

Oso aguro pasa behar da eta ez dut uste joango naizekin. Aurreko Korrikan hartu nuen parte baina aurten ez.



Mikel Unanumo
Ikaslea
(14 urte)

Ez dakit parte hartuko dudan edo ez, oso goiz da eta ordu horretan ohean egoten naiz. Azken momentuan gogoia badut, beharbada, joango naiz Korrikara.



Mikel Martiartu
Ikaslea
(28 urte)

Jaikitzen banaiz hartuko dut parte baina oraindik ez dut pentsatu, larreiko goiz da. Beste ordu baten balitz ziur joango nintzatekeela.



Joseba Iribar
Saltzailea
(24 urte)

Bai azpeitiarra naiz eta Azpeitin bertan hartuko dut parte, egin diren urte guztietan hartu dut parte eta benetan ere giro ona egoten da.



Eva Briz
Ikaslea
(20 urte)

Ez dut parte hartuko, hala ere, euskararen alde Korrika bezalako ekintzak egitearekin ados nago.

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein
MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak	
Arrasateko Eskualde-Ospit.....	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11
Gurutze gorria	
Bergara	76 55 76
DYA	
Antzuola	76 62 91
Anbulatorioak	
Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko).....	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16
Anbulantziak	
Gipuzkoako ambulanziazki	45 87 44
Udaltzaingoa	
Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22
Ertzaintza	
Arrasate	79 71 99
Suhiltzaileak	
Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00
Matxurak	
Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	12 01 62
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78
Garraioak	
Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19
Hirugarren adinekoentzako zentruak	
Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57
Kontsumitzailearentzako informazioa	
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55
Monterrongo liburutegia	
Monterron.....	77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 17

Mola. Maalako Errabala

Larunbata 18

Morales. San Andres auzoa

Igandea 19

Azkoaga. Ferrerías kalea

Astelehena 20

Español. Iturriotz kalea

Asteartea 21

Corcuera. Musakola auzoa

Asteazkena 22

Irizar. Erguin auzoa

Osteguna 23

Amezeua. Santamaina auzoa

17 OSTIRALA

ZINEA

“Los Inmortales” 7etan eta 10etan.

MISERABLEAK MUSIKALA

Bergarako Musika Eskolak eskainitako “Miserableak” musika Amaia Antzokian gaueko 10.30etan.

HITZALDIA GAZTETXEAN

Okupazioari buruzko hitzaldia Gaztetxean, arratsaldeko 7.30etan. Hizlariak: Alemania eta Italiako auzune okupatuetako kideak. Jarraik antolatuta.

18 LARUNBATA

ZINEA

“Escape de Absolom” 5etan, 7.30etan eta 10etan.

ZUHAITZ EGUNA

“Zuhaitz eguna” Arrasateko Udalak antolatuta. 6. mailako ikasleei deialdia eta gonbitea luzatu zaie goizeko 10etan Monterronen bildu eta 70 lizar eta haritz sartzen lagun dezaten. Trikitilariak izango dira eta parte-hartzaile guztiei otarteko bana emango zaie zuhaitza landatu eta gero.

TXOMINITURBERI OMENALDIA

Gaueko 10.30etan mitin-jaialdia. Bertsolariak: Haritz Lopategi, Ion Maia, Iratxe Ibarra eta Igor Elortza. Trikitilariak eta Guk taldea. Ekintza politikoa, aurkezlea Xabier Zubizarreta eta hizlaria Ion Idigoras. Herri Batasunak antolatuta. Amaia antzokian.

KORRIKAKO EKINTZAK

Goizeko 10.30etan etxafleruak eta txistulariak, muralen pintaketa eta dantzariak trikitilarien laguntzaz. 4retan umeentzat jolasak, txokolatada, aurpegi margoketa, Herriko plazan.

19 IGANDEA

ZINEA

“Escape de Absolom” 5etan, 7.30etan eta 10etan.

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Arrasateko zikloturisten irteera. Ibilbidea: Arrasate, Arlaban, Marieta eta Arrasate, 46 kilometro guztira. Irteera goizeko 10etan Monterronen.

PINTURA ERAKUSKETA

M. Quevedo eta L.J. Arrietaren pintura erakusketa Harresi aretoan martxoaren 24tik apirilaren 2ra. Ordutegia: egunero 6etatik 8etara eta larunbat eta jaieguntan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

IKASTAROAK

“Heldutze frogak egiteko prestakuntza” ikastaroa. Astelehenetik ostegunera arratsaldeko 6.30etatik 8.30etara, martxoaren 20an hasita. “Altzariak berreskuratzeko eta berrezartzeko” ikastaroa. Astelehenero arratsaldeko 6.30etatik 9etara martxoaren 20an hasita. Famili eta Gizarte-Heziketarako Zentruak antolatuta.



ZUHAITZ EGUNA

Martxoaren 18an Zuhaitz eguna Arrasaten. Goizeko 10etan lizar eta haritzak sartuko dira Monterronen.

20 ASTELEHENA**ZINEA**

"Escape de Absolom" 7etan eta 9.30etan.

ODOL-EMATEA

Arrasateko anbulategian arratsaldeko 4.30etatik 8ak arte.

EUSKARAREN ASTEA SAN ANDRES HERRI ESKOLAN

9.30etan hitzaldia Xabier Lizasoren eskutik. 11etan antzerkia ikasleentzat, 5.30etan antzerkia ikasleek gurasoei eskainita.

21 ASTEARTEA**ZINEA**

"Escape de Absolom" 7etan eta 9.30etan.

HITZALDIA

Gaia: "Mendia topaketa bide gisa". Hizlaria: Andoni Billar, Besaideko kidea. Arratsaldeko 4.30etan Monterronen. Arrasateko jubilatutako etxeek antolatuta.

ODOL-EMATEA

Arrasateko anbulategian arratsaldeko 4.30etatik 8ak arte.

HITZALDIA

Gaia: "Errausketa eta Osasuna". Hizlaria: Carles Amengual Vicens. Arratsaldeko 7etan, Udaletxeko Ekitaldi-aretoan. EKI taldeak antolatuta.

22 ASTEAZKENA**KORRIKA TXIKIA**

Arratsaldeko 3retan Korrika txikia herriko kaleetan.

HITZALDIA

"Sekta Suntsitzaileak" izenburupean hitzaldia. Hizlaria: Jose M^o Jansa. Arratsaldeko 7.30etan Monterronen, Udalak antolatuta.

23 OSTEAGUNA**KORRIKA**

Goizeko 7etan Korrika 9 helduko da Arrasatera. Fagorparean emango zaio ongi gorria.

PLAY-BACK SAN ANDRES HERRI ESKOLAN

Arratsaldeko 5.30etan play back jaialdia eta antzerkia goi zikloko gurasoentzat.

HIKA IKASTAROA ARETXABALETAN

Hika berba egiten ikasteko ikastaroa martxoaren 25 eta apirilaren batean, Aretxabaletako Lora-mendi elkarteak antolatuta. Prezioa: 500 pta. Izen-ematea Lora-mendiren lokalean eta Arlutz tabernan egin daiteke edo 77 09 70 zenbakira dei egin.

REIKI IKASTAROA

Martxoaren 25 eta 26ko aste-bukaeran Reiki ikastaroaren lehen maila. Emalea: Ana Otero, Reiki irakaslea. Arrasate Yoga Elkarteak antolatuta.

BAZKARIA

Martxoaren 25ean, zapatuan, 1.934an jaiotako kintoen bazkaria egingo da. Eguerdiko ordu batean Frantziskotarren Elizan meza izango dute, ondoren, 2.30etan Udalpe elkartean bazkaria. Izen-ematea Bengoa taberna eta Zangitu margodendan egin daiteke martxoaren 22a baino lehen. Prezioa: 2.000 PTA.

IPUIN TAILERRA

AEDk ipuin tailerra jarriko du abian. Ikastaroa idazteko zaletasuna duten 15 urtetik gorakoei dago zuzenduta. Larunbat goizetan batuko dira, printzipioz bost astetan. Lehendabiziko eguna 18a izango da goizeko 11etan, AEDn (Pablo Uranga 4). Interesatuok AEDra deitu.

KONTZERTUA GAZTETXEAN

Martxoaren 24an W.C. Noise eta Dick Cheese taldeen kontzertua Gaztetxean gaueko 9.30etan.

**ERAKUSKETA**

Haratuzteetako argazki Lehiaketaren erakusketa martxoaren 20tik 26ra Monterronen. Ordu-eguna: egunero 6etatik 8etara eta larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara. Martxoaren 24an ASA argazkilari taldeak lehiaketako sariak banatuko ditu.

“Gizon matxistak emakume askok bainoadore gutxiago izaten du kinka larrien eta sufrimenduaren aurrean. Amak baino harreman pobregoak seme-alabekin. Unidimentsionalagoa da emakumearen aldean. Bragetaz harrotzen da, eta afektibitatearen agerpen oroz lotsatzen. Autoritario, zurrun, mozorroturik ibiltzen da bere paperean huts egiteko beldur”.

Iñaki Mendiguren 95-III-10

Egunkaria

“Hemendik aurrera, eta prezio berean, AEDko partaide orok lau elkarteko bazkide izateko aukera izango du.... Elkarteak independenteak izatera funtzionamendu zein baliabideen lorpenerako erraztasun gehiago daude”.

Jabier Ozaeta 95-III-15



“Arazo asko etxeko konponketetan gertatzen dira, igeltsero, iturgin, arotz... eta horrelakoekin, askotan ez dutelako behar bezala lan egiten edo aurrekontu bat eman eta gero beste bat kobratzen dutelako (...) Horrelako erreklamazioren bat jasotzen dugunean beste aldeak dioena entzuten dugu. Arrazoa kontsumitzailearena bada Jaurlaritzara jotzen dugu, Kontsumo zuzendaritzara, gaia han bide-razatzen”.

Antton Fernandez 95-III-15 “Goizean behin” saioa.



Zer dela eta antolatu duzue sekta suntsitzaileei buruzko hitzaldia?

Sekta suntsitzaileen arazo ez da berria gizartean, aspaldi zabaltzen hasi ziren-eta. Baina zenbait arrazoi medio, azken egun haue- tan gaurkotasuna hartu du gaiak herrian eta informazio egokia eskaintzeko une apro- posa dela pentsatu dugu.

Hitzaldi hauek antola- tzeko helburua ez da alarma piztea edota jendea beldur- taraztea, baizik eta ardura kri- tikoia zabaldu eta jendeari tal- de hauen atzean zer egon dai- tekeen azaltzea. Talde hauek jendea erakartzeko azpijokoz baliatzen dira: eskaintzen dute- na ez da gero ematen dutena, agintzen dituzten “paradi- suak” sekten liderrentzat bakarrik izaten dira, botere eta diruz eraikitako paradizuak.

Gure gizarteak ez ditu gizabanakoaren behar guztiak betetzen, sinesgarritasuna galdu da arlo askotan eta iden- tifikazio arazoak sortzen dira; egoera hau mesedegarria da sektendako. Gabezia horietaz aprobetxatzen dira eta euren aurrean babesa eskaintzen dute sektek, dependenziaraino eramane daitekeen babesa.

Horrela bada, hitzaldiak antolatzeko Estatuan sekten gaineko aholkularitza ematen duen elkarte bakarrarengana jo dugu (Bartzelonako AIS). Elkarte horretako aditu bat etorriko da Arrasatera, bi hitzaldi ematera: lehena publiko osoari zuzenduta eta bigarrena gizarte arloan lan egiten dutenendako, hau da, elkarte, zerbitzu edo ikastetxeetako arduradunei zuzendua. Azken horiekin dependenziari aurre egiteko gora-beherei buruz arituko da.



Blanka Jauregi
Udaleko Gazteri Teknikaria



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Atxiloketak

Astearte goizaldean Polizia Nazionalak bi lagun atxilotu zituen Arrasaten. Atxilotuak 30 urteko Maria Angeles Uribe Altuna arrasatearra eta 26 urteko Juan Manuel Gorostidi Salinas, hemen bizi den urnietarra dira. Lagun biak euren etxean atxilotu zituzten ETako talde legal batekin zerikusia zutelakoan eta Donostiako komisaldegira eraman zituzten gero.

Atxiloketak salatzeo, martitzenean eta eguastenean hainbat lagunek manifestazioak burutu zituzten Arrasaten.

AEDren hitzaldia

“Europako maparen aldaketak azken urteotan” izenburupean, hitzaldia izan zen asteazkenean AEDk antolatuta. Luis Fernandez Euskaldunon Egunkariako kazetaria eta Aranzadi elkarteko Josu Tellabide aritu ziren berbetan.

Luis Fernandezek esan zuenez, komunismoaren gainbeherak aldaketak ekarri ditu Europako mapan eta oraindik Bosniako gerra amaituko barik dagoenez, ezinezkoa ei da zein aldaketa gehiago sortuko diren jakitea. Horrez gain, epe motzera beste zenbait aldaketa egon daitezkeela zehaztu zuen Egunkariako kazetariak.

Tallabideren berbetan, berriz, gorabehera politikoei maparen aldaketa ekarri arren, etniek hor jarraitzen dute eta gaur egun 123 etnia desberdin daude Europan.



Euskadiko Kutzaren batzar orokorra

Joan den ostiralean Euskadiko Kutzaren batzar orokorra egin zen Amaia antzokian. Euskadiko kutxaren arduradun berbetan iazko urtea ona izan zen, irabaziak ateratzeaz gain eta Euskaditik kanpo bulegoak ireki dituzte eta. Irabaziei dagokienez, zergen aurreko mozkinak 10.703 milioitakoak izan ziren, 93an baino 9'2 gehiago. Gainera, politika komertzialaren emaitzak onak izan ziren, 55 urteik gorakoendako Super Libretak arrakasta izan duelako eta bulegoak arratsaldez irekitzeari ekin diotelako.

Folk asteburuan jende gutxi

Jende gutxi erakarri zuen Bizz produkzioak-ek antolatutako folk asteburuak. Ostiralean ehun bat lagun hurbildu ziren Musakolako kiroldegian izan zen emanaldira eta zapatuan, berriz, laurogeiren bat lagun. Sebero Altuben ere kantatu zuten beste folk talde batzuk baina dohainik izan arren, horra ere ez zen jende gehiegi hurbildu.

Bestalde aipatu, Korrika kulturalaren barne Egañak eta Lertxundik domekan eman zuten kantaldiak behintzat, jende asko erakarri zuela.



Lorentxo Altuberen hitzaldia

Jubilatu etxeek antolatuta, Lorentxo Altubek hitzaldia eman zuen martitzenean euskal musika tresna tradizionalak gaitzat harturik. Ekintza horretara hainbat lagun hurbildu zen eta Lorentxok, euskal soinu tresnak egiteko ohitura nondik dator kion eta zelan egiten dituen azaldu zuen. Horrez gain, berak egindako instrumentuek ere erakutsi zuen.

Jubilatuak antolatutako ekintzen barruan eguastenean, “Parrokiako otxoteak” eta “Bibolin bikoteak” musika ekitaldia eskaini zuten Monterronen.

JAIOTZAK

- Ainhoa Aranzabal Urkia. Martxoaren 6an.
- Iñaki Rivas Martinez. 8an.
- Oier Errasti Jauregi. 9an.

EZKONTZAK

- Agustin Amozarrain Larriñaga eta Eulalia Gonzalez Ramos. Martxoaren 4an. Zibilez.
- Jose Jabier Uribesalgo Altuna eta Miren Gotzone Magunazelaia Arejolaleiba. 11n. Elizaz.

HILDAKOAK

- Maria Markaide Goenaga. 7an. 65 urte.
- Luciano Sanz Garcia. 11n. 86 urte.

BITTORI
erretegia

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitatea: Legatz kokotzak eta txuletak
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tlfnoa: 79 55 82

ATABAKA

Bitteriano Larrañaga
**ANTZINAKO GAUZAK • ALTZARI ZAHARREN
KONPONKETA ETA BERRIKETA**

Artetale, 27 BERGARA ☎: 76 50 80 (Gauoko 9etatik aurrera)



* ARANTZA ZEZIAGA

Operamania?

Zalantza barik esan daiteke operak sekulako momentu ona bizi duela egunotan, eta ez soilik musikazale amorratuen artean. Urrin joan barik, ikusi besterik ez dago, Bilbon ABAOk antolatutako opera tenporada; hasieran emankizun bat baino ez zen egiten eta, jendeak eskatuta, bi egiten hasi ziren. Orain, berriz, hiru saio egiten dira eta jende ugari bertaraten da. Era berean, aipagarria da Arrasate Musikalek opera geurera ekartzeak izan duen arrakasta izugarria.

Eta zeintzuk diren genero hau, orain arte elistitatzat jo dena, hain arrakastatsu bihurtu duten arrazoiak? Batetik, komunikabideek eta bereziki telebistak egin duten apostua dago (eta denok dakigu azken honek, ikutzen duen gaia ikutzen duela, haren zabalkundean duen eragina).

Orain, etxeko jarlekuan jarrita, mundu zabaleko opera emanaldirik onenak ikus ditzake edozeinek, eta argumentua ere jarraitu azpi-titulak jartzeko sentsibilitatea izan dute eta.

Batez ere artista famatuek (Carreras, Domingo eta Pavarottik) egindako lanari eta kontzertu ospetsuei esker, opera zatiak munduko bazter guztietara zabaldu dira. Ekimen horiek egokiak ote

ziren edo komertziagarriak ote ziren gaineko eztabaidek oihartzuna areagotu baino ez dute egin.

Nolanahi ere, guzti honek genero honekiko interesa are gehitzeko balio behar du soilik. Ildo horretatik, ezin dugu ahaztu "musikalizatutako drama" moduan definitu dela genero hori, hau da, antzerkiko elementuak (istorioa) eta elementu musikalak (partitura) uztartzen dituela eta bene-benetan zuzenean baino ezin daitekeela bere osotasunean gozatu.

Hori dela eta, Arrasate Musikal zoriondu beharrean gaude musikazale guztiok, izan ere, etxean bertan horrelako ikuskizun zoragarria ikusteko aurkera luzatu digute. Zeinek esango zigun orain dela berrogei urte, lehenengo opera ikusi genuenean, zaletasun hura gure herrian bertan Amaia antzokira hurbildu zen jende piloak ere izango zuela.

Eskerrikaşko, Arrasate Musikal eta hurrengo arte (laster izango ahal da).

* OPERA ZALEA

.....

*"Hori dela eta,
Arrasate Musikal
zoriondu beharrean
gaude musikazale guztiok"*

USTEAK USTE

Plaza ala enparantza erabili ote beharko litzatekeen eztabaidan ez naiz sartuko, baina nolanahi ere, bi kontzeptu hauek, gehiegi matizatu barik, jolastu, bildu nahiz patxadan egoteko espazioak esan nahi dute, niretzat behintzat; arkitektoak, akaso beste esanahi bat egokituko die.

Larrea baserria zegoen ingurutik bueltatxo bat ematea baino ez dago etxe arteko patio edo karkaba horiek, plaza izena daramatela kostata sinesteko.

Ez dut uste plaza hauen estutasuna orografian edota espazio faltan oinarritu daitekeenik; aitzitik, hauek eremu irekiak antolatzeak arrazoiak izan beharko liriteke, hau da, konprimatutako etxe multzoak askatzeko egin beharko liriteke plaza zabalak. Herrian betidanik izan ditugun plazak itxiak direla kontuan izanda, aldaz gora dagoen auzoak ez ote du espazio irekiagoen premiarik?

Plazak Larrea inguruan, planoren baten ganean, etxebizitza multzoen elkar lotzean sortu dira, bertan sortuko diren haurrek behar izango duten espazio nahia ahaztuz eta euren garapen eta jolas ahalmena harresiz mugatuz.

Plazen diseinu eta egiteari gehiago erreparatu beharko geniokela iruditzen zait.

JON GARAI

PLUS ULTRA
taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

Erdiko kale. 79 19 37

**T
L
E
A**

Ferrerias. 79 87 62




Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

Hilbera
kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

ARRASATE



la merced 79 20 92
IKASTETXEA



2 URTEREKIN ERE
HEMEN NAHI ZAITUGU




Emakumeendako Mus Txapelketa jokatu zen Leintze elkartean domekan. 32 emakumek eman zuten izena eta 16 bikote osatu ziren. Arratsalde osoa musean jo ta sua ibili ondoren, bikote irabazlea M. Angeles Elortza eta Angelita Uribe-txebarriarena izan zen, bigarrenak Belen Aranburuzabala eta Espe Lizarralde izan ziren. Zorionak denei!



Gasteizko IKA euskaltegian ikasten duen talde bat etorri zen gurera ATB eta Arrasate Press zelan egiten diren ikustera. Taldea Oña-

tiko Barnetegian dauden Jaur-laritzako langileek osatzen dute, eta hemen zeudenez argazkia ateratzeko aprobetxatu genuen.



Gipuzkoako Trialsin txapelketa burutu zen Udalan domekan. Bederatzi urtetik hamalau urte arteko neska-mutilek hartu zuten parte ikuskizun bikaina eskainiz. Bizikleta ganean trebeak baino trebeagoak direla garbi utzi zuten.

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

CE **ERRASTI KRISTALDEGIA**

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

"EDERTU"
ileapaindegia



San Andres auzoa
Tfnoa: 79 04 28



Jon Etxebarria eta **Iban Lizarralde** Arrasate Telebistako xelebreak ETBra joan zaizkigu. Jon Anduezak aurkezten duen Gutxi Gorabehera saioan errebotek ematen dituzte, eta ganoraz gainera!. Ea bada, hauek ere, ATBtik, ETBra eta ondoren Tele 5rako bidea hartzen duten. Batek daki! Bitartean zorte on!



Arrasateko Institutua eta Frantziako Jonzac-eko ikastetxeen artean ikasle-trukaketa egiten dute. Hemengo ikasleek astebete eman zuten Fran-

tzian eta frantziarrak Arrasaten beste horrenbeste. Arrasaten igaro duten astean, Arrasate Press eta Arrasate Telebista ezagutzera etorri ziren.

IZEN PROPIOAK

● **Trikitixa** eskolako Zuzendaritza Batzorde berria honela gelditu da osatuta: presidentea **Mikel Pereda**, presidenteordea **Ramon Osinaga**, idazkaria **Joana Lasa**, idazkariordea **Liher Larrea**, diruzaina **J.R. Arriola-bengoa**, laguntzailea **Jabier Jauregi** eta batzarkideak **Pili Otxoa**, **Iban Herrarte** eta **Luis Okina**.


● **Fran Miguel**, 20 urte, atxabaltarra izan da Euskal Herriko Unibertsitateko Xake Txapelketako irabazlea. Nazioarteko Unibertsitateko Xake txapelketan hartuko du parte maiatzean Galizian. Franek Kimika ikasten du Donostian .

● **Mikel Pereda**, 26 urte, arrasatearra da Korrikako liberatua Arrasaten. Martxoaren bukaera arte lan horretan arituko da.

● **Goio Arana**, 32 urte, arrasatearra da Arrasate Presseko maketatzailer berria. Goio ondo ezagutzen du aldizkaria lau urte eman zituen bertan eta. Urte t'erdi kanpoan egon eta gero, berriro dugu Arrasate Pressen. Txos Azurmendi ordezkatu du Goio.

PUB HAIZEA

50218 22784 462



Epelde

- Estudioa
- Ezkontzako erreportaiak
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24
Tfnoa: 79 19 71

Maixu Arano, 8
Tfnoa: 79 26 23



SEKTA

suntsitzailak

sectas destructivas

HITZALDIA

Hizlaria

Jose M^a Jansà

(**'ASESORAMIENTO E INFORMACION SOBRE SECTAS'** elkarteko kidea)

*"Arrazoitu eta komentzitzea, zein zail, luze eta neketsua!
Sugestia? Zein erraz, azkar eta merkea"*

RAMON Y CAJAL



- **Martxoak 22, asteazkena**
- **Arratsaldeko 7.30etan**
- **Monterron Kultur Etxean**

Arrasateko
Udala

Futbito 94-95

Txapelketa

Babesleak: JMA, Kajoj taberna eta Arrasate Kirolak



Sorpresarik ez bigarren faseko estraineko jardunaldian

Bigarren faseko lehen jardunaldia jokatu da astebukaeran eta normaltasuna izan da nagusi. Gol dextente sartu dute taldeek; gol gehien AC Surcosek sartu ditu, 9 guztira. Sokoakoak eta AC Surcos izan genituen aurrez aurre eta Sokoakoak ezin izan zuten Surcosen presioa gaintitu. Suministros Ugarte eta Ke oxtiasen arteko neurketa 1 eta 8 bukatu zen Suministrosen alde. Los Heredia eta Diego Antonio Iriztu taldeen arteko partidua bizia izan zen eta kantxan talde bakarra egon zen: Los Heredia. Gogoz aritu ziren eta horren erakusgarri lortu zituzten 7 golak. Orlando Piratas taldea ere aipatu beharra daukagu, nahikoa fin dabil eta horrela jarraituz gero, kontuan

hartzeko taldea izan daiteke. Hain fin ez dabiltzanak Irati STSkoak dira; ederto hasi zuten txapelketa baina apurka-apurka indar barik geratzen ari dira eta hori emaitzetan igartzen da, gero eta gehiago kostatzen zaie eta partidua aurrera ateratzea. Jardunaldiko partidurik gogorrena Zuloak eta Ojo Avisorek jokatu zuten, Zuloak 7 Ojo Avisorek 1 izan zen azken emaitza. Bestalde, partidurik biziena Cerveceria Leintz eta Bukanaken artekoa izan zen partidua ez zen eta azken minuturarte erabaki eta bukatzeko oso segundu gutxi falta zirenean Cerveceria Leintzekoek lortu zuten garaipenaren gola. Kostata, baina merezimendu osoz, 5 eta 4 irabazi zuten.



Felipe
Arrizabalaga
AROSZTEGIA

- SUKALDE-ALTZARIAK
- SARRERAKO ETA BARRURAKO ATEAK
- ARMAIRU ENPOTRATUAK ATE KORRIGARRIEKIN

Legarre pabiloia, ARRASATE Tfnoa: 79 22 76


Bigarren fasea

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ORLANDO PIRATAS	1	1	0	0	4	1	2
ARGI IBILI	1	1	0	0	4	2	2
PERRAHOTSA	1	1	0	0	2	1	2
HIREI	1	0	1	0	5	5	1
PEPELUS	1	0	1	0	5	5	1
EQUUS BTR	1	0	0	1	1	2	0
LOS DIMY	1	0	0	1	2	4	0
ARTZANKOS UDALAITZ	1	0	0	1	1	4	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
AC SURCOS	1	1	0	0	9	2	2
LOS HEREDIA	1	1	0	0	7	2	2
LORATEGI POTROAK	1	1	0	0	3	2	2
PUB PEOPLE	1	1	0	0	4	3	2
IRATI STS	1	0	0	1	3	4	0
MSM INGENIER	1	0	0	1	2	3	0
D. A IRIZTU	1	0	0	1	2	7	0
SOKOAKOAK	1	0	0	1	2	9	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
NUEVO TABERNA	1	1	0	0	1	0	2
ZULOAK	1	1	0	0	7	1	2
FOSFOROS	1	1	0	0	6	2	2
CER. LEINTZ	1	1	0	0	5	4	2
BUKANAK	1	0	0	1	4	5	0
PETROLEROS	1	0	0	1	2	6	0
OJO AVISORE	1	0	0	1	1	7	0
TOTEM	1	0	0	1	0	1	0

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
SUM UGARTE	1	1	0	0	8	1	2
MIKELOS	1	1	0	0	6	1	2
ADELAIDA HAIZEA	1	1	0	0	4	1	2
TRIKITI	1	0	1	0	1	1	1
ZOTZ	1	0	1	0	1	1	1
GANBELAS	1	0	0	1	1	4	0
AUTOS MURU	1	0	0	1	1	6	0
KE OXTIAS	1	0	0	1	1	8	0



WERU®
Ate + leihoak



Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik...

BELARRIRA



Lau partidu gomendatzen dizkizuegu datorren jardunaldirako: Bar Nuevo eta Zuloak zapa-tuan goizeko 9etan. Argi Ibili eta Orlando Piratasen artekoa ere ikusteko modukoa izango da goizeko 11etan. 7 etan, ostera, Fosforos eta Bukanak izango ditugu lehian. Domekan 12etan jokatu da partidurik interesgarriena, Adelaida Haizeak eta Trikitik neurtuko dituzte indarrak.

◆ **Epaileak:** Hauek izango dira epaile bigarren faseko bigarren jardunaldian: Canacho, Igor, Carabias, Aizkora eta antolakuntza.

◆ **Bi epaile:** Pasa berri den jardunaldian bi epaile egon dira zenbait partidutan. Esate baterako MSM eta Lorategi potroak partiduan Aritz eta Carabiasek egin zituzten epaile lanak. Los Heredia eta D. A Iriztun Perez eta Canacho egon ziren. Arrazoirik ez daki-gu baina lau begik bik baino hobeto ikusiko dutela ziur gaude.

◆ **Jokalaririk zakarrena:** Bukanak taldeko Las-kurain eta Txipi izan dira jardunaldiko jokalaririk gogorrenak. Gogorak eta zenbait jokalditan arriskutsuak ere bai. Indar horiek kontrolatu egin behar dira berandu izan baino lehenago. Aholku bat besterik ez da!

◆ **Golak:** 105 gol sartu dira bigarren faseko lehen jardunaldian. B taldea izan da gol gehien sartu duena, 32 gol denera eta D taldea dago hurrengo, 26rekin.

EMAITZAK

A taldea

Argi Ibili 4 - Los Dimy 2
Orlando Piratas 4 - Artzankos Udalaiz 1
Hirei 5 - Pepelus 5
Perrahotsa 2 - Equis BTR 1

B taldea

Irati STS 3 - Pub People 4
MSM Ingenier 2 - Lorategi Potroak 3
Los Heredia 7 - D. A Iriztu 2
Sokoakoak 2 - AC Surcos 9

D Taldea

Nuevo taberna 1 - Totem 0
Zuloak 7 - Ojo Avisore 1
Cerv. Leintz 5 - Bukanak 4
Petroleros 2 - Fosforos 6

E Taldea

Adelaida Haizea 4 - Ganbelas 1
Trikiti 1 - Zotz 1
Mikelos 6 - Autos Muru 1



**Parques
y Jardines**

Parke eta lorategien sorkuntza.

Larazaintzako mantenimendua ora har.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

ASTEBURU HONETAN

**Zaldibar
larunbata 18**

- 8.50 Nuevo taberna - Zuloak
- 10.00 Los Heredia - Sokoakoak
- 11.00 Argi Ibili - Orlando Piratas
- 12.00 AC Surcos - D. A Iriztu
- 13.00 Mikelos - Ke Oxtias
- 14.00 Lorategi Potroak - Pub People
- 15.00 Sum. Ugarte - Autos Muru
- 16.00 Cer. Leintz - Petroleros
- 17.00 Artzankos Udalaiz - Los Dimy
- 18.00 Ojo Avisore - Totem
- 19.00 Fosforos - Bukanak

**Zaldibar
Igandea 19**

- 8.50 Irati STS - MSM Ingenier
- 10.00 Equis BTR - Pepelus
- 11.00 Hirei - Perrahotsa
- 12.00 Adelaida Haizea - Trikiti
- 13.00 Zotz - Ganbela



Uribe-auzoko futbito txapelketa hasiko da zapatuan

Zapatuan martxan jarriko den Uribe-Auzoko futbito txapelketan 55 taldek hartuko dute parte, 738 jokalaria guztira. Hamaika taldeko bost multzo egin dira eta astero talde batek atsedena izango du. Uribe-Auzoko txapelketak 11 jardunaldi izango ditu eta San Juan egunean jokatu da finala. Zaldibar-ko txapelketarekin konparatuta, alderik nabarmenena jokalarien kopuruan dago, talde bakoitzean eta atezaina kontutan hartuta, bost jokalaria egon behar dira eta. Gainon-

tzeko arauak, Zaldibarko txapelketan izandako antzerakoak dira; batzuk aipatzekotan: kornerrak hankaz atera beharra eta alboko sarea eskuz, buruaren gainetik; faltak hesia jarriko den tokitik 2,5 m.tara jaurtitzea; ateko sarea atezainak eta eskuz egin ahal izatea eta jokalarien aldaketak portieraren atzetik egitea. Partiduak zapatu eta domeketan jokatu dira, zapatuetan goizeko 9etatik arratsaldeko 8etara eta domeketan goizeko 11etatik eguerdiko 2etara.

VE ECUADOR

Bidaiak

Bidaia zoragarri bat irabazi nahi baduzu, har ezazu parte ATBketan lehiaketan Ez galdu aukera!

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06



Kalitate gorena leihoretan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



Arrasateko Senideak-eko partaidetarikoko batzuk. Goian ezkerretik hasita, Mertxe Bergaretxe, Adela Arejolaleiba eta Joxe Ramon Alvarez. Behean, Joxepa Arregi, Angel Guridi eta Angelita Arozena.

Senideak: ahotsak elkartuta presoen eskubideen alde

Preso dauden senitarte-koek dituzten eskubideen alde egiteko, 1991n Senideak elkartea jaio zen.

Arrasaten ere, preso politiko asko dagoen herria izanik, familiartekoak batu egin

ziren presoen eta euren eskubideak defendatzeko. Esaten dutenez, helburua ez da jendeak euren ganako pena sentitzea, indarrean dauden lege batzuk bete daitezela lortu nahi dute

eta horretarako elkartu dituzte ahotsak Senideak elkartean. Herriko Senideak-eko ahotsak zer esaten duten jakiteko, elkarteko hainbat partaiderekin jardun dugu hizketan.

Maria Agirre

– Zergatik eta zer lortzeko sortu zen Senideak elkartea?

– Senideak: Presoek dituzten eskubideak zapalduta daudelako eta euren eskubideen alde egiteko beste biderik

ikusten ez genuelako sortu zen. Gure helburua, eskubide horien alde egin eta bete daitezela eskatzea da.

– Zeintzuk dira preso politikoek ukatzen zaizkien eskubideak?

– S: Asko dira ukatzen zaizkienak. Adibidez, epaiketa

bat dutenean legeak esaten du hilabete lehenago abokatua presoarekinegon behar dela epaiketa prestatzeko, baina hori ez da betetzen. Gainera, lau preso sumario baten egoten badira, hau da, epaiketa bakarria badute sakabanatuta daudenez abokatuak ez du

epaiketa prestatzeko denborarik izaten. Bestalde, legearen arabera etxetik hurbilen dagoen espetxean egon behar da preso baina jakina da hori ez dela gertatzen, gehienak etxetik kilometro askora daude eta.

Horrez gain, presoaren

erreibilitazioa eta integrazioa lortzeko ekintzak egin behar dituztela esaten du legeak baina gureak gehienetan isolatuta egoten dira eta ez dute ezer egiteko aukerarik izaten. Itxura denez, legeak beste preso batzuen dako dira baina ez preso politikoen arazoa ere badago, bisitak jasotzeko eragozpen ugari izaten dituzte.

Eskubide asko ukatzen zaie baina inork ez du ezer esaten. Preso batzuk zigorraren 3/4a beteta dute, baina ez dituzte askatzen eta komunikabideek ez dute ezer esaten.

- Preso sozialek eskubide gehiago dituzte?

- S: Gu ez gaude preso

sozialek dituzten pribilegioen kontra baina batzuen eta besteen artean izugarriko aldea dago. Preso sozialekin legaltasunaren zati bat betetzen da, preso politikoekin bat ere ez.

- Eta zuek senitarteko moduan, zein eskubide dituzue zapalduta?

-S: Tentsio handian joaten gara preso bisitatzerara. Beti zalantza bat eramanen dugu espetxerako bidean, ea zer asmatuko ote duten bisita debekatzeko. Paperez jositako joaten gara baina hala ere askotan asmatzen dute zerbait bisita debekatzeko. Izugarria da zertzuk asmatzen dituzten.

- Beraz, zuen egoera ere ez da ona...

-S: Komunikabideetan ez

da ezer isladatu baina senitartekook ere arazo handia dugu, barruan daudenak bezain zigortuta gaude. Espetxera joaten garenean babes eta laguntza barik sentitzen gara. Erantzunkizunak eskatzen hasi eta inork ez du erantzuten, inoiz ez da espetxeko zuzendaria egoten, ezta zuzendariordea edo gizarte laguntzailea ere.

Eta gero diruaren arazoa dago. Sakabanaketaren ondorioz etxetik urrun daude presoak eta guri asko kostatzen zaigu bueltaka ibiltzea. Gainera, presoari ere dirua eman behar izaten diogu kartzelan jateko nahiz garbitasunerako gauzak eros ditzan, han ez dute ezer ematen eta.

- Horri aurre egiteko

laguntzarik jasotzen duzue?

-S: Legeak esaten duenez preso probintziatik kanpo badago, senitartekooi hilean behin bidaia ordaindu behar digute baina hori sekula ez da bete. Ekonomikoki ito egiten gaituzte.


- Gizarteak badaki espetxetean zer gertatzen den?

- S: Bai, baina politikoen eta komunikabideek ez dute horri buruz hitz egiten. Egoera horren berri emateko dossierak egin eta alderdi politikoen artean banatu genituen. Beraz, jakinaren gainean daude baina oraingoz ez digute erantzunik eman.

- Senideak talde moduan, zer lortu duzue orain arte?

-S: Estrasburgoko talde politiko batzuk egoeraren

Arrasateko preso politikoak



Pako Robles

1981ean atxilotua
Gartzela-zigorra: —
Herreran, Alcala-Mecon, eta Puerto de Santa Marian egona. Orain Valdemoron.




Pedro Guridi Arozena

1980an atxilotua
Gartzela-zigorra: 88 urte
Soria, Alcala, Herrera eta Salto del Negron egona. Orain Murtzian dago.




Kepa Urrea

1992an atxilotua
Gartzela-zigorra: epaitu gabe
Orain Puerto de Santa Marian dago.



Jesus M. Zabarte

1984ean atxilotua
Gartzela-zigorra: —
Salto del Negro, Herreran, Carabanchel eta Alcalan egona. Orain Valdemoron.



Arantxa Sasiain

Orain dela urte bat atxilotua
Gartzela-zigorra: epaitu gabe
Pariseko Fleury espetxean dago.

bat bidali zuten Madrila baina bestela ezer gutxi lortu dugu, presoen eskubideak gero eta zapalduagoak daude. Hori bai, elkarriz laguntzen diogu eta erata gaudenez horrek ere asko errazten digu egoera. Herriko presoen senitartekoen artean harremana izateaz gain, Euskadikoekin badugu, horrela bisitak egitera joateko eta beste gauza batzuetarako antolatzeke aukera izaten dugu.

- Zeintzuk osatzen duzue elkarteak?

- S: Bileratan presoen senitartekoak izaten gara baina elkarte oso zabala da eta beste lagun batzuk ere laguntzen digute. Ideia politiko desberdineko jendea dago

S

enitartekook barruan daudenak bezain zigortuta gaude.

Senideak-en; gauza bat presoaren pentsatzeko era da eta beste bat horren senitartekoenena. Pentsakera politiko desberdina dugu baina arazoa berdina.

- Zein da astero egiten dituzuen enkarteladen helburua?

- S: Presoak hor daudela eta euren eskubideak zapaldu daudela erakustea da martitzenero egiten ditugun enkarteladen asmoa. Horrez gain, legeak bete daitezela ere eskatu nahi dugu. Izan ere, legeak ez ditugu guk geuk egin baina hala ere ez dira betetzen.

- Gogorra izango da senitarteko bat preso izatea.

- S: Oso gogorra da, gauza ikaragarriak ikusten dira

eta. Presoen eta senitartekoen bizimodua latza da baina batez ere presoena. Hala ere eurek oso ideologia sendoa dute eta horrek asko laguntzen diete baina senitartekook ez dugu indar hori. Eurek badakite guk asko sufritzen dugula eta horrek asko tristetzen ditu baina kartzelara bisitatzera joaten garenean askotan gu baino animatua-goak egoten dira.


- Talde bakezaleek antolatutako bileratan izan zarete, zer aporta dezake Senideak-ek?

- S: Bileratan izan garenean, presoen eskubideak bete eta presoak Euskadira ekar ditzatela eskatu dugu. Hori lortzea da gure ametsa.




Jose Gabriel Urizar

1988an estraditua
Gartzela-zigorra: 30 urte
Baiona, Pau, Carabanchelen, Alcala eta beste espetxe batzutan izan da eta orain Tenerifen dago.



Jon Agirre

1981ean atxilotua
Gartzela-zigorra: 70 urte
Carabanchel, Puerto, Herrera eta beste kartzela batzutan izan da. Orain Tenerifen dago aramaiotar hau.



Jon Arejolaleiba

1986an atxilotua
Gartzela-zigorra: 14
Carabanchel, Alcala, Herrera de la Mancha eta orain Santonnan (Cantabrian) dago aramaiotar hau.




Josu Arkauz

1991n atxilotua
Gartzela-zigorra: 8 urte
Frantziako hainbat kartzelatan egona, orain Saint Mauriceko espetxean dago.



Enrike Letona

1987an atxilotua
Gartzela-zigorra: + 76 urte
Carabanchel, Alcala eta Herreran izan da. Orain Murtziako kartzelan dago.




Jose Ignacio Gaztañaga

1988an atxilotua
Gartzela-zigorra: 31 urte
Alcala eta Carabanchel espetxeetan izan da eta orain Herreran de la Manchán dago.



Unai Parot

1990an atxilotua
Gartzela-zigorra: 830 urte
Carabanchel, Alcala eta Herreran egon da. Orain Almerian dago.




Pilar Mondragon

atxilotua
Gartzela zigorra: —
Pariseko Fleury espetxean dago.

ARRASATEKO IKASTETXE PUBLIKOEN ESKAINTZA: "D" ETA "MURGILTZE" EREDUAK

2 urtetik 18ra Irakaskuntza Publikoa, Euskalduna eta Dohainekoa

HAUR HEZKUNTZATIK HASI...



MUSAKOLA, ERGUIN
ETA SAN ANDRESEN

LEHEN HEZKUNTZARA PASA




ETA BATXILERGO EDO R.E.M.a

GAZTEAREN HELDUTASUNA HELBURU



Unibertsitatea?



Lan mundua?

Inskripzio
epea
Maiatzaren
4tik 18ra

ARRASATEKO BATXILERGO INSTITUTUA EZ IZAN ZALANTZARIK!

ORIENTAZIO SAILA:

Etorkizunari begira, ikasgaiak aukeratzekoan, ikasketa arazoetan

Dohainik - 2 urtetik 18 urte arte - Euskara - Jangela - Gurasoekin harremanak
Eskolaz kanpoko ekintzak - Garraioa

“Arrasate 93” AEDko lehiaketa

“Kimu”

JOSEBA ELORZA
(Multzorik onenean saritutako diapositiba)



SAIOA ARANDO
Berto -Paperetan helduen mailan akzesitaren zatia)

(Jon Enbeitak 89ko Txapelketa Nagusian erabilitako *Munduko ilunabarra* doinuan)

Telebista

1

Gogoan dut nola-hala,
gabonak heldu zirala,
ta gure etxeko sala
erregaluz bete zala.
Tresna arraro batek hornitzen
zuen hormako apala:
lauki itxuraz, botoitxoekin
eta aurpegi zapala;
zertarako zen nahiz eta ez nuen
ulertzen behar bezala,
monstruo hura ikusi eta
jakin nuen berehala
aurrerantzean bizimodua
aldatuko zitzaidala.

2

Telebistaren esana,
izena eta izana,
lehen jolas hutsa zana,
bihurtu zitzaidan zama.
Gogoz ikusten nituen behintzat
egunero sei programa,
hargatik sortu zitzaidan gero
sortu zitzaidan afana:
erdi negarrez joaten nintzen
gauetan amarengana,
telebista haurren antzeko
izan nahi nuke nik ama,
eta eduki jolaserako
beraiek daukaten dana.

3

Telebistaren bitartez
eta nere borondatez,
gauza asko nere ustez
ikasi nituen zortez.
Jakintza hori azaldu nion
aitari apustu batez:
– Baietz leihoa guztiz txikitu
eskubiko hiru kolpez!
– Ez ezazu arren ezer apurtu
eta geldi egon zaitez!
– Zu lasai egon, dena prestatzen
egon bainaiz hiru astez,
Gokuk hain errez egiten badu
aitatxo nik zergatik ez?

4

Ez dut Gokun izaera,
ez naiz Superman berbera
ta erizteko aukera
kendu didate gainera.
Zer den egia, zer den gezurra
ere ez dakit ostera...
Telebistaren inbento hori,
inbento ona ote da?
Gabonetako egun haretan heldu
zenetik etxera
konturatu naiz ia guztiok
zoroak bihurtu gera...
Ez al da hobe botatzen badut
salako lehiotik bera?

Mondra garaipenaren bila

3. mailako Mondrak Zamudioen bisita izango du domekan Atxabalpen. Talde biak sailkapeneko erdialdean daude kokatuta eta gorantz egiteko puntu premia dute. Zamudio 29 puntu eta positibo bakarrarekin sailkapeneko 11. tokian dago. Mondrak 28 puntu ditu eta 12a. da sailkapenean. Etxeko taldeak sei partidu daramatza garaipena lortu barik, Balmasedaren kontra lortu zuen eta azkena urtarrilaren 29an. Harrez gero, hiru berdinketa lortu ditu Tolosa, Aloñamendi eta Aurreraren kontra eta hiru partidu galdu Hernani, Santurtzi eta Basconiarekin. Bigarren bueltan 3 gol baino ez ditu sartu Mondrak eta sei jaso. Datuak ez dira batere onak Arrasateko futbol taldearentzat; dena dela, oraindik 11 neurketa falta dira denboraldia bukatzeko eta tarte horretan denetik pasa daiteke. Hamaika partidu horietatik bost etxean jokatuko dituzte Zamudio, Zalla, Durango, Alaves eta Touringen kontra. Gainontzeko partiduak etxetik kanpo jokatu beharko ditu Getxo, Amorebieta, Mungia, Gasteizko Aurrera, Urola eta Elgoibarko futbol-zelaietan. Domekako norgehiagoka, une honetan garrantzitsuena gertutasunagatik, arratsaldeko 5etan hasiko da.

Futbitoa

Arrasatek eta Asesoria Mendizabalek elkarren kontra jokatuko dute zapatuan arratsaldeko 6etan Iturripen. Arrasatek azken sailkatuaren kontra neurtuko ditu indarrak eta itxuraz behintzat, irabazteko moduko neurketa dirudi. Narcisok gidatzen duen taldea



Futbitokoez zapatuan jokatuko dute.

nahiko denboraldi traketsa egiten dabil eta horregatik etxeko partidu guztiak irabazi egin behar ditu mailari eusteko. 20. jardunaldia jokatu denean etxeko taldeak hamahiru partidu galdu ditu, hiru berdindu eta lau irabazi. 11 punturekin 13. tokian dago. Golei dagokienez, 63 sartu ditu eta 92 jaso.

Arabako territorialekoek Bar Marino izango dute aurrez aurre zapatuan arratsaldeko 3retan. Sailkapenaren arabera, partidu gaxa dute arrasatearrek, Bar Marino 36 punturekin bigarren sailkatua da eta.


LABURRAK

Pilota

Euskadiko ohorezko ligan eskuzkoek, dagoeneko, bukatu dute liga. Paletakoek, Laudion kontra jokatuko dute zapatuan arratsaldeko 4retan Laudion. Deba Arroa txapelketan, arrasatearrek Aretxabaletakoek kontra neurtuko dituzte indarrak Iturripen, goizeko 11etan. Infantiletan Lazkano-Belategi bikoteak, Bartolome eta Lasagabaster bikotea izango dute aurrean. Jubeniletan, Zugasti-Uribarren eta Apraiz-Atxa izango dira lehian eta nagusietan Mujika- Zuazuabiskar bikotea Errasti anaiek osatutako bikotearen aurka.

Rugby-a

Martxoaren 25ean Jabier Perez de Arenaza zenaren omenez rugby partidua jokatuko da Garagartzan. Gaur egungo rugby jokalaria eta beteranoak izango dira aurrez aurre. Beraz, rugby jokalaria izandakoei eta omenaldian parte hartu nahi dutenei jakinarazi nahi zaie ostegunero arratsaldeko 7etan entrenamenduak izango dituztela. Informazio gehiago nahi izanez gero, 794000 zenbakira dei egiten dezakezue.



Txomin Iturberen omenez

MITIN-JAIALDIA

Bertsolariak
Haritz Lopategi
Jon Maia
Iratxe Ibarra
Igor Elortza

Trikitilariak
GUK taldea

Ekintza politikoa
Aurkezlea:
Xabier Zubizarreta
Hizlaria:
Jon Idigoras

HERRI
BATASUNA


Martxoak 18, larunbata
Gaueko 10.30etan • Amaia Antzokia

PENALTIAK

● **Urbina-Maltzagak eta Vino de Torok elkarren kontra jokatuko dute denboraldiko 23. jardunaldia Zamoran. Vino de Toro ez da nolanhiko taldea, 39 punturekin sailkapeneko bigarren postuan dago eta Trebol Gijon liderrak beste puntu ditu. Arrasateko taldea 30 punturekin 11.a da. Bestalde, "Araba Euskaraz"-en alde, Basconia-Taugres eta Urbina-Maltzagaren arteko partidua jokatuko da Mendizorrotzan apirilaren 5ean. Europako titulua eskuratze-ko atarian geratu den taldea arrasatearren kontra lanean ikusteko aukera izango da. Basconiarren joku bikainaz gozatzeko mereziko du Mendizorrotzara joatea. Arrasatearren dute onena eman beharra izango dute ACBko taldearen kontra, saskibaloian jokatzeko badakitela erakusteko.**

Eskubaloikoak berriro ere Iturripeko kantxan

Arrasate eskubaloi taldea eta Pontevedrako Redoldelaren arteko neurketa ikusi ahal izango da domekan eguerdiko 12etan Iturripen. Arrasatek Betacar taldearen kontra Iturripen jokatuako partidua irabazi egin zuen 22 eta 19. Beraz, animoz gainezka daude Imanol Alvarezen mutilak eta bigarren garaipena segidan lortzeko asmoz kantxaratuko dira domekan. Redoldela, ona baino esperientzia handiko taldea da, hamar urte daromatza lehen mailan eta hori igarri egiten da. Taldean bi jokalaririk garrantzitsuak daude, Ors eta Chamorro, biak ezkerreko eskuaz aritzen dira eta ondo mugitzen dute baloia. Banan-banan hartuta jokalaririk trebeak daude baina taldeko jokuan ez dira hain sendoak eta are gutxiago etxetik kanpo jokatzeko dutenean. Arrasateko taldean Iraola da baja bakarra, gainontzeko jokalaririk Alvarezen esanetara egongo dira. Zortzigarren jardunaldia jokatu denean, etxeko taldeak 8 puntu ditu eta sailkapeneko 5. tokian



Arrasate eta Kakarraldo aurrez aurre Gragartzako zelaietan.

dago. Jaitsiera fasea bukatzeko lau neurketa baino ez zaizkio falta, bi etxean jokatuko dira Redoldela eta Alcobendasen kontra eta bi kanpoan Bejar eta Betacarren kantxetan. Etxeko partidua irabazita, lehen mailan jarraituko luke Arrasate eskubaloi taldeak.

Rugbya

Lehen mailakoek Kakarraldo talde sendoa izango dute etsai zapatuan, arratsaldeko 4.30etan Garagartzan. Rugbyko jokalariek gogor egin beharko dute lan den-

boraldia bukatzeko falta diren partiduetan, sailkapeneko 8. tokian daudelako 4 punturekin. Lehen maila hamar taldek osatzen dutela kontutan hartuta, mailari eusteko gura baino arazo gehiago izan ditzakete arrasatearrek. Gaurdaino bi neurketa irabazi dituzte Sestaon kontra etxean eta kanpoan. Kakarraldok maila igotzeko aukera asko ditu, talde lana ondo betetzen dute eta lerroko jokuan ederto moldatzen dira. Arrasatearren ez dute lan makala izango gernikarren aurka emaitza positiboa lortzeko.

EMAITZAK

Futbola

3. maila: Basconia 2 - Mondra 0
 2. erregionala: Mondra 2 - Antzuola 1.
 Emakumeak: Mondra 7 - Aloñamendi 0
 Jub. Ohorezko Liga: Añorga 1 - Mondra 0
 Lehen Kadeteak: Arrasate 3 - Aurrera 1.
 Bigarren kadeteak: Almen 2 - Arrasate 3.
 Infantilak: Arrasate 4 - Ordizia 5.
 Hurrengoak:
 3. maila: Mondra - Zamudio. Igandea. 5etan. Atxabalpen.
 2. erregionala: Lagun Onak - Mondra. Larunbata. 3.30etan.
 Emakumeak: Bergara - Mondra. Larunbata. 3.30etan.
 Jub. Ohorezko Liga: Mondra - S. Tomas Lizeoa. Larunbata. 4.30etan.
 Lehen Kadeteak: Beasain - Arrasate. Larunbata. 11etan.
 Infantilak: Arrasate - Beasain. Igandea. 11etan.

Saskibaloia

EBA Liga: Urbina Maltzaga 78 - Trebol Gijon 81
 Juniorkak B: Urbina Maltzaga 51 - Iraurgi Fideo 34
 Kadeteak A: Aldapeta 65 - Urbina Maltzaga 70
 Kadeteak B: Amigos A 53 - Urbina Maltzaga 24
 Kadeteak Emak A: Urbina Maltzaga 32 - Amigos A: 67
 Kadeteak Emak B: Zarautz 20 - Urbina Maltzaga 34
 Hurrengoak:
 EBA Liga: Vino de Toro-Urbina Maltzaga. Igandea 6etan. Zamora
 Seniorrak S-23: Ordizia - Urbina Maltzaga. Larunbata. 4etan.
 Juniorkak A: Andraitz - Urbina Maltzaga. Larunbata. 4.30etan.
 Juniorkak B: Urbina Maltzaga - Lizaso. Igandea. 4etan.
 Seniorrak Emak: Erka Renteria - Urbina Maltzaga. Igandea. 12etan.
 Kadeteak A: Urbina Maltzaga - Juven.

Larunbata. 12etan.
 Kadeteak B: Iñaki Zarautz - Urbina Maltzaga. Igandea. 10etan.
 Kadeteak Emak A: Gros Loiola - Urbina Maltzaga. Larunbata. 4etan.
 Kadeteak Emak B: Urbina-Maltzaga - Almen B. Larunbata. 4etan.

Eskubaloia

Lehen maila: Arrasate 22 - Betacar 19
 Lehen Territoriala: Ormaiztegi 26 - Arrasate 20
 Jubenilak: Legazpi 19 - Arrasate 20.
 Hurrengoak:
 Lehen maila: Arrasate - Hormigones. Igandea. 12etan. Iturripe.
 Jubenilak: Arrasate - leizaran. Igandea. 10etan. Iturripen.

Futbitoia

Lehen maila: Jarrileros 7 - Arrasate 3
 Arabako territoriala: Calasanz 10 - Arrasate 4
 Hurrengoak:
 Lehen maila: Arrasate - A. Mendizabal. Larunbata. 6etan. Iturripe.

Arabako territoriala: Arrasate - Bar Marino. Larunbata. 4etan. Iturripen

Rugby-a

Lehen maila: Getxo 43 - Arrasate 10
 Jubenilak: Arrasate 0 - Ordizia 50
 Hurrengoak:
 Lehen maila: Arrasate - Kakarraldo. Larunbata. 4.30etan. Garagartzan.
 Jubenilak: Arrasate - Hernani. Larunbata. 3etan. Garagartzan.
 Emakumeak: Gaztedi - Arrasate. Larunbata.

Pilota

Ohorezko Liga
 Eskuz bana: Aretxabaleta 18 - Arrasate 11
 Hurrengoak:
 Ohorezko liga
 Paletan: LLodio - Arrasate. Larunbata. 4etan. Llodio.
 Deba Arroa
 Arrasate - Aretxabaleta. Infantil, Jubenil eta nagusietan. Larunbata. 11etan. Iturripen.

“Na Lúa” folk-taldea

Galiziar folkiak Portugalgo ilargiari so

Makina bat folk-talde etorri zen gurera joan zen asteburuan. Horietako bat “Na Lúa” talde galiziarra izan zen. Bost diska dituzte kalean eta hamabost urte daramatzate jotzen. Euren musikaren bereizitasuna Portugalgo eragina da.

— Zein da “Na Lúa” taldearen historia?

— Aurten 15 urte betetzen ditu taldeak. “Na Lúa” urteen joan etorriaz irautea lortu duen talde horietakoa da, hau da, sortzen diren talde asko eta asko berehala desagertzen dira. Gu txikitatik gabiltza musika jotzen eta hasieratik gaur arte, ia-ia lagun berdinak jarraitzen dugu proiektu honetan: duela 3 urte partaide berri bat sartu zen eta bestela ere, kolaboratzaile batzuk izan ditugu urte hauetan. Gainontzeakoaz, pentsatuko duzun moduan, etapa eta istorio asko bizi izan ditugu.

— Zuen kantak egiteko kantari eta musikari zaharrek harremanetan jartzen zaretela diote. Zehazki, nola lanitzen dituzue abestiak?

— Beno, esan dezagun, musika egiteko orduan imaginazioa erabiltzen dugula batez ere, zentzu horretan, ez gara oso talde ortodoxoa. Talde honetan lanean ari garenoi era guztietako musika gustatzen zaigu eta gainera, bakoitzak bere eraginak ditu,



jazz-arenak, rock-arenak... proiektu honekin hasi ginen, gure asmoa galiziako sustrai musikalak oinarritzat hartuta aurrera jotzea izan zen, hau da, musika “berregitea”, “birmoldatzea”. Beraz, musika berriak egiterakoan ez zaigu rock edo jazz ikutuak sartzea axola. Hori kontuan hartuta oso zabalak garela esango nuke.

— Nondik dator zuen musika?

— Dударik gabe, gure musikaren erroak galziarrak dira, baina gero, badaukagu halako kutsu zeltikoa ere.

.....

*“Guretzat,
folk-musika
bizitzeko
era bat da”*

Hori bai, gainontzeko folk talde galiziarrengandik bereizten gaituen gauza bat badaukagu: aide portugesa. Taldea Porriñoakoa da, ia-ia Galizia eta Portugalen arteko mugan dago, Tuy herritik 10 km. tara, beraz, hartu-eman handia daukagu bertako taldeekin. Izan ere, talde portuges askorekin egin izan ditugu kolaborazioak. Egia esan, Portugalera joaten gara “poteoan”. Beraz, gauza guzti hauek nahastuta sortzen ditugu gure abestiak... baina ez pentsa! Indiako musikaren eraginik ere badugu... beraz, esan dezagun, kultura desberdinak elkartu nahi izaten ditugula gure lanean.

— Ematen duzue kontzerturik Estatutik kanpo?

— Bai, Eskoziatik etorri berri gara eta oso pozik gainera, oso harreman onak egin ditugu han. Portugalen ere askotan jotzen dugu.

— “Folkiak”, “rockeroak” baino askoz apalagoak zaretela esan ohi da; ospeak ez omen zaituzte harrotu...

— Ez dakit zergatik baina egia dela uste dut. Musikarekiko daukagun ikusmira oso desberdina da, guretzako folk-musika bizitzeko era bat da. Nire ustez, “folkiok”, epe luzerako asmoa bezala ikusten dugu taldea.

LABURRAK

Agur “Miserableei”

Bergarako Musika Eskolak 1994ko urtarrilaren 6an estreinatutako “Miserableak” opera, Arrasateko Amaia antzokian izango da gaur. Bergarako Musika Eskolak bere 10. urteurrena ospatzeko taularatu zuen opera hau eta makina bat lekutan eskaini ondoren, Amaia antzokian ikusi ahal izango da azken aldiz.

Operako arduradunek adierazi dute, euren nahia “Miserableak” estreinatu zen leku berebean agurtzea zela, Bergarako frontoian, baina arazo teknikoak izan dituztenez, Arrasaten egin beharko diote behin-betiko agurra.

“Miserableak” ikusi eta entzuteko aukerarik izan ez duzenok, jakin sekulako arrakasta izan duela taularatu den leku guztietan. Victor Hugoren “Les Misérables” jatorrizko nobelan oinarritutako opera da eta hainbat bergararek antzezten dute. Musika, berriz, Bergarako Orkestra Sinfonikoaren ardurapean dago Alfredo González Chirlaquek zuzenduta.

“Miserableak” ikuskizuna gaueko 22.30etan hasiko da. Azken aukera duzu hau, beraz, ez ezazu edonola pasatzen utzi: merezi du.



ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94



PEUGEOT

Salmenta eta zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

**TXOKO
TABERNA**

Eure berezitasunak
pintxo eta
mokau gozoak

LABURRAK

Bideoteka berria Monterronen

Datorren astelehenean, hilaren 20an, bideoteka zerbitzu berria zabalduko du Monterrongo Udal Liburutegiak. Bideotekan 500 bideo inguru egongo dira, bertan ikusi edo etxera eraman ahal izateko. Bideoak bertan ikusteko lau magnetoskopio eta beste lau telebista jarri dituzte liburutegian eta horretarako beharrezkoa izango da hamasei urtetik gora izatea eta nortasun agiria eta bazkide txartela eramatea. Mota desberdineko bideoak izango dira ikusgai: dokumentalak, euskarazko bideoak, pelikula klasikoak...

Zerbitzu berria astelehen, asteazken eta ostiraletan arratsaldeko 6etatik 8etara egongo da zabalik.

"Euskeraren Astea" San Andresen

Martxoaren 20tik 24ra, "Euskeraren Astea" ospatuko dute San Andreseko Herri Eskolan. Astelehen goizean Xabier Lizaso pianujoleak dantza, marrazki eta zentzumenen adierazpena egiten erakutsiko die ikasleei. Asteartean tailerrak zabalduko dira. Asteazken goizean filmea eta Play-Back jaialdia izango dira; arratsalde partean antzerkia eta bideo emanaldia.

Ostegunean, "Euri-gizona" filma, ondoren, antzerkia. Arratsaldeko 2.30etan Assenet Diez Erizen eskutik, "irakurketa animazioa" eta 5.30etan Play-Back jaialdia eta antzerkia izango da gurasoentzat.

Ostiralean, Virginia Imaz ipuin-kontalariaren emanaldia, Judo ekitaldia eta txokolatada.



Garazin hasi eta Gasteizen bukatuko da Korrika.

Badator Korrika!

"Jalgi Hadi Euskaraz" lemapean, datorren ostegunean, martxoaren 23an, "Korrika 9" pasatuko da Eskoriatza, Aretxabaleta eta Mondrauetik. "Korrika" inguruan, aurten "Korrika Kulturala" ere antolatuta da; "Gure sustraiak lurrari lotuz" lemapean. "Korrika Kulturala" Euskal Herri osoan garatzen ari den kultur egitarau zabalada. Egitarau horren barruan, Andoni Egaña eta Benito Lertxundiren kantaldia egin zen Arrasaten joan den asteburuan.

Larunbata, asteazken, eta ostegunerako hainbat ekintza antolatuta da inguruko herrietan.

Eskoriatza

Martxoaren 18an izango dira ekitaldi guztiak. Arratsaldeko 3.30etatik aurrera umeendako jolasak egingo dira herriko plazan; hankapaluak, mural marrazketa, trikitilariak eta txalaparta, besteak beste. 6.30etatik aurrera berriz, "Korrika Txikia" herriko kaleetatik igaroko da eta ondoren kale ani-

mazioa, txaranga, txistulariak eta dantzariak giroa berotzen.

Ostegunean, "Korrika 9" goizeko 6.20etan pasatuko da.

Aretxabaleta

Aretxabaletan asteazkenean, martxoak 22, egingo dira Korrikaren inguruko ekitaldiak: arratsaldeko 2.30etatik aurrera, umeendako jolasak herriko plazan eta 3.30etan "Korrika Txikia" herriko kaleetan zehar.


"Korrika 9", goizeko 6.40etan helduko da Untzillatik eta Galartza Auzoa, Lausita, Erreka Barren, Mitarte Durana eta Otolara kaleak zeharkatuko ditu.

Mondragoe

Martxoaren 18an, larunbatean, goizeko 10.30etatik aurrera etxalderuak eta txistulariak, muralen marrazketa, Arrasateko dantza taldeen emanaldia eta trikitilarien musika izango dira kalean. Arratsaldean berriz, 4retatik aurrera, umeendako jolasak, txokolatada, aurpegi pintaketa, rapelak eta tirolinak ikusteko aukera egongo da Herriko plazan.

Martxoaren 22an, asteazkenean, "Korrika Txikia" egingo da arratsaldeko 3retan kaleetan zehar. "Korrika 9" berriz, ostegunean igaroko da.


Ostegunean zer ordutan pasatuko da Korrika?



Eskoriatza
Goizeko 6.20etan

Aretxabaleta
Goizeko 6.40etan

ARRASATE
Goizeko 7.00etan





Larugalde kaleko jaiak ziren. San Agustin egunez, abuztuaren 28an izaten zen egun handia eta kaleko jaien antolatzaileek ekintza ugari antolatzen zuten, horien artean ezagun eta ospetsuena txirrindulari lasterketa.

Baina auzoko neskatilamutikoentzat ere izaten zen ekintzarik eta erretratuko neskatila hauek bainika lehiake-

tan parte hartu zutenean jaso zituen argazkilariak. Trapu pusketa bat hartu eta eskolan ikasitakoa erakusterari ekin zioten. Ezkerretik hasita jarrita, Sole Bergaretxe, Pilar Altuna, Marilu Etxabe eta Maribel Otxandiano. Atzetik begira, M^a Esther Otxandiano.


Neskatilok jaietako erropekin zeuden, paperezko txoria eta jaietako auzoko jaietako

tako bisera eta guzti. Alparगतak "modan" zeuden, nonbait. San Juanez gain, kale bakoitzeko jaiak ere erakargarriak izaten ziren oso, Zarugalden bezala Maala edo Ferreriasen.

Atzean ageri den etxea tailer bat zen, gaur egungo Muxibar tabernaren parean zegoena, kartoi fabrikaren alboan.

Etorkizuna herri-komun

*eta Arrasaten
badugu
geurea:*




ARKO

ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

Z E R N A H I A G O ?

Pello Aldabe**“Shot grabaketak” ekoa**

- **Oso garestia da talde batentzat maketa kaleratzea?** Jendeak uste duena baino merkeagoa.
- **Arrasaten badago musika girorik?** Oso gutxi, lehen askoz gehiago zegoen.
- **Orain arte zenbat talderekin egin duzue lan?** Hamabirekin.
- **Zenbat talde dago herrian?** Guk dakigunez, hogeita hamahiru.
- **Jaso duzue diru-laguntzarik estudioa martxan jartzeko?** Bai, Udalak estudioan eta bideragarritasun planean lagundu digu.
- **Konpetentzia handia dago disketeen artean?** Gure bailaran ez, baina Donostia Idean bai.
- **Zein instrumentu duzu gustokoen?** Kitarra.
- **Nola ikusten duzu euskal musikaren egoera?** Beste belaunaldi batzuen ondoan, nahiko makal.
- **Zer deritzozu hemengo taldeek ingelesez kantatzeari?** Ondo deritzot, norberak nahi duen hizkuntzan abestu dezake.
- **Musika korrante bat?** Rock&roll-a.
- **Talde bat?** “The Jam”.
- **Egingo zenuke lanik Prince, Michael Jackson edo Madonnarekin?** Bai, oso gustora gainera.
- **Inoiz izan zaren kontzerturik onena?** Madrilen, Bad, UB40 eta U2 taldeek jo zuten kontzertuan.
- **Bizi izandako momenturik hunkigarriena?** 88an, “nire mutilek” Gipuzkoako Saskibaloitxapelketa irabazi zutenean.

**Ipuin tailerra
AEDn**

AEDk ipuin tailerra jarriko du laister. Ikastaro hau idazteko zaletasuna duten 15 urtetik gorako gazteei dago zuzenduta. Larunbat goizetan bilduko dira partehartzaileak eta printzipioz, ikastaroak bost asteko iraupena izango du.

Ipuin tailerra martxoaren 18an hasiko da eta oraingoz lau lagunek baino ez dutenez izena eman, ikastaroa aurrera joan ahala izen-ematea onartuko da.

Ikastaroa goizeko 9.30etan hasi eta 11.30etan amaituko da. Ipuinak idazten irakatsiko duena berriz, Marije Gomez ipuinzale arrasatearra izango da. Eskolak AEDko egoitzan bertan izango dira. Interesaturik egonez gero, AEDko 77 12 28 telefonora deitu lehenbailehen eta Esterrengatik galdetu.

**Kontzertua
Gaztetxean**

Datorren ostiralean, martxoak 24, rock kontzertua izango da Arrasateko Gaztetxean. Portugalgo “W. C. Noise” taldeak “Reality Asylum” diskaren aurkezpena egingo du.

unikabideetan dago...

Arrasate Press

24.000 mila irakurle astero.

Arrasate Telebista (ATB)


Hirugarren katea audientzian.

• ESAERA •

“Gauza gutxirekin
poztea zaila da,
askorekin ezinezkoa”

EBNER

• JEROGLIFIKOA •



Nafarroa Behereko harria

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8						
9						
10			11	12		13
14		15				
		16				17
18						

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Jose Antonio, eskubaloiko atezaina. 8. Ukondo. 9. Eraikuntza bateko atal itxia. 10. Almeriako ibilgailuetan. 11. Lodi. 14. Iraganbide. 16. (Ald.) Oinarrizko edaria. 17. Nor pluralean. 18. (Ald.) Ontzigile.

Bertikalak 1. Mugaketa. 2. Jateko haragia. 3. (Ald.) Gehiegi. 4. (Ald.) Bidaiari, ibiltari. 5. Nobelioa. 6. Pote. 7. Jantzi. 12. (Ald.) Ibai gainetik pasatzeko eraikuntza. 13. Zurrut egin. 15. (Ald.) Aire izaerazko garputza.

• HOROSKOPOA •

Aries Herensugea baino mingaina handiagoa ei duzu. Ea, erakutsi!

Taurus Zure etxeko teilatuan ondare historiko paregabea dago.

Gemini Abiadura handiegia hartzen duzu autoan zoazenean. Trankilago hartu.

Cancer Zergatik larritzen zara hainbeste astelehena heltzen denean?

Leo Sorpresa! Hurrengo astebukeraren kanpora joango zara.

Virgo Aspaldian ez duzu libururik irakurri. Irakurtzea ahaztu ala?

Libra Lerdakeriak baino ez dituzu esaten neskez inguratzen zarenean.

Scorpio Zoritxarreko ustegabea izango duzu datorren astean baina aurkituko duzu konponbiderik.

Sagitarium Pentsatzen hasi eta nahiko zintzoa zarela iruditu zait.

Capricorn Tarrazean ibiltzen zara. Igo itzazu oin horiek!

Aquarius Josten ikasi behar ei duzu. Asperturik zaudenik ezin ukatu.

Piscis Eskiatzera joaten bazara elur gutzia urtuko da.

Etxe-Aundi



Zuen ezkontza
gurekin ospatzen
baduzue,
EZKONTZAKO
CAVA GURE
KONTU
Anno de Codorniu

Andregaiak, galdetze hutsagatik, oparia jasoko du

ZUEK ESAN PREZIOA ETA GUK MENUA

Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90

TELEBISTAREN TXOKOA




Alkategaiak ezagutuz

Maiatzaren 28an udal hauteskundeak izango direla eta, apirilaren 6tik aurrera hauteskunderi buruzko programa bereziak egingo dira ATBn, ostegunero gaueko 9.50etan. "Ni Alkate" izenburupean, Mikel Irizarrek azken udal-hauteskundeetako botukopuruaren araberrako ordenean, alderdi politiko bakoitzeko alkategaia elkarrizketatuko du.

"Ni Alkate" saioaren bidez alkategai bakoitza ezagutu eta alderdien eskaintzak jaso ahal izango dira.

Bestalde, maiatzaren 18an, hauteskunderi buruzko mahaingurua egingo da ATBn.

KOMIKIA



Etxe-Aundi

1. PLATERA

*Txiki eta porretxiko entsalada
Frijitu aukeratuak*

2. PLATERA

Karagia edo arraina

POSTREA

Etseko gozoteria

ARDOA

Etseko ardo gorria eta beltza

Kafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

Monte
taberna

Maalako arrabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

PROGRAMAZIOA



19 IGANDEA

21.00etan
Mondragol. Itxaro
Zubillagak aurkeztuta.

20 astelehena

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport

21 Asteartea

13.30etan
Mondrasport (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
ATBketan

22 ASTEAZKENA

13.30etan
ATBketan (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Gazte-Nahaste
Eztabaidagaia: "Hezkuntza
publikoa ala pribatua?"

23 OSTEguna

13.30etan
Gazte-Nahaste errep.
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
"Trebelerak"
Eskulana: Fieltrozko
panpinak.

24 OSTIRALA

13.30etan
Trebelerak (errep.)
19.15etan
Marraski Bizidunak
19.50etan
Kukaratxa Motel
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete
22.00etan
Marraski Bizidunak

SOLUZIOAK

Horizontalak: 1. Moreno, 8. Uka-
londo, 9. Gela, 10. AL, 11. Gizen
14. Pasabide, 16. Aru, 17. Ak, 18.
Nizitmo.
Bertikalak: 1. Mugapen, 2. Okela,
3. Ral, 4. Elagart, 5. No, 6. Ontzi, 7.
Soneko, 12. Ihu, 13. Edan, 15. Sag.
Ibarla.

Etxebizitzak

- **Bi oheko gela alokagai.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Nesken etxe batean logela alokatzen da.** Tfnoa: 81 22 06. Saioa.
- **Pisu bat alokatzen da Erdiko kalean.** Tfnoa: 79 18 03 / 77 03 38.
- **Pertsona bat behar da pisua osatzeko, Grosen, Donostian.** Tfnoa: 29 11 10. Jontxu.
- **Nesken pisu batean pertsona bat behar da.** Tfnoa: 77 06 25.
- **Etxebizitza alokatzen da Garibai kaleko 16. zikian.** Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 77 86.
- **Pisua alokagai Arrasaten.** Tfnoa: 79 59 72.

Lana

- **Esperientziadun emakumea, prest garbitasun lanak eta etxeko lanak egiteko.** Tfnoa: 79 15 19. Informaeskuragarri.
- **Andra bat etxeko lanak egiteko prest** orduka Tfnoa: 77 10 20. Nati.
- **Neska esperientziaduna umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest.** Tfnoa: 79 77 94.
- **Andra erizain auxiliarra eta esperientziadun gerokultora pertsona nagusiak zaintzeko prest.** Tfnoa: 79 34 53.
- **Emakume euskalduna umeak zaindu edo interina lan egiteko prest.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Neska bat OHOk klaseak emateko prest dago.** Euskaraz edo erderaz. Tfnoa: 79 25 09.
- **Neska esperientziaduna umea zaintzeko eta**

garbitasunak egiteko prest. Tfnoa: 77 14 21. Usoa

- **Lanak makinaz nahiz ordenadorez pasatzen ditut.** Interesatuak 79 36 63 tfnora deitu eta Arantxirengatik galdetu.
- **Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko edota etxeko garbiketarako egiteko prest.** Harremanerajko dei egin 79 79 87 tfnora. (Isi Mellado).
- **Andra bat eskaintzen da arratsaldean edo aste-bukaeretan pertsona nagusiak zaintzeko.** Tfnoa: 77 04 60.
- **Informatikako klaseak ematen dira.** Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan. Tfnoa: 77 02 59. Iker.
- **Magisteritza bukatua dut eta klase partikularrak emango nizkie OHO ikasleei.** Interesatuak bazaizu deitu 79 94 04 tfnora. Marijo.

• **Neska umeak zaintzeko neska prest.** Tfnoa: 79 90 04. M^a Jose.

• **Umeak edo pertsona nagusiak zainduko nituzke.** Tfnoa: 79 39 15.

• **Neska prest, etxeko lanak egin edo umeak zain-
tzeko.** Tfnoa: 79 96 10

Salerosketak

- **10 litroko FAGOR kalentadorea salgai, ia berria.** 13.000 pta. **Berogailu japoniarra, handia eta berria,** 35.000 pta. Tfnoa: 77 01 64.
- **FORD FIESTA 1.100 Trip salgai.** SS-AB. Ondo zaindua eta prezio onean. Tfnoa: 76 46 80. Gaez deitu. Anabel.
- **Roneoko etxeetan garajea alokagai.** Tfnoa: 79 36 39.
- **Garajea alokagai Uriburu auzoan.** Tfnoa: 79 90 30

• **RENAULT 4-a salgai. 50.000 pta.** Matrikula: SS-T. Tfnoa: 79 58 82 (astebukaeretan).

• **Bigarren eskuko altzariak salgai.** Tfnoak: 79 23 97 / 79 52 80.

• **Kanping edo karro erremolkea salgai.** Tfnoa: 79 00 99.

• **Renault 14-a salgai. 50.000 pta.** SS-P. Tfnoa: 79 58 82.

• **Bi garaje plaza alokatzen dira.** Tfnoa: 79 82 95. Amaia. Arratsaldean.

• **BMW K-75-S salgai.** SS-AK matrikula. 27.000 km. Berria eta prezio onean. Tfnoa: 77 04 21.

• **Motorra salgai.** BMW K75 - S. Matrikula: SS - AK. 27.000 km. ditu. Berria eta merkea. Tfnoa: 77 04 21.

• **Siberiar huski zakur kumeak salgai.** Begi urdin-dunak. Oso merke. 35.000 pta. Tfnoa: 79 57 03.

• **Asolo markako mendiko botak salgai.** 41 zenbakia. Prezio onean. Tel. 79 23 60.

• **Gas naturaleko kalentadorea salgai.** Prezio onean. Tfnoa: 79 59 72.

• **Bi pare eski eta bi pare bota salgai.** 33.000 PTA-gatik. Tfnoa: 79 25 31. Gaez.

Denetarik

- **Motxila bat aurkitu dut Santa Barbara** parkean, ahateen aintziraren ondoan. A. G. inzialak daramatza, eta barruan ume baten kuiaderno eta margoak dauzka. Tfnoa: 79 26 02.
- **Musika taldeak lokal bat alokatu nahiko luke.** Tel. 79 13 26.
- **Korreos-eko oposaketak** prestatu nahi badituzu deitu 76 80 53 tfnora. Goizeko 10etatik arratsaldeko 3ak arte.

Aste Gazte

Bekak

- "Jose Miguel de Barandiaran" Fundazioak, Etnologia ikerketa-beka deitu du. Bakar-kako lagunak nahiz lantaldeak har dezakete parte. Ikerketak bi urteko iraupena izango du. Dokumentazioa aurkezteko epea: martxoak 31.
- Arte Plastikoetan sortzeko bekak, Kultur Ministeritzak deituta. Arlo honetan esperientzia edo titulazio akademikoa dutenei zuzenduta. Epea: apirilak 4.
- "Argentaria Fundazioak" Museologiari buruzko bi

beka deitu ditu, lizentziatuei zuzenduta. Epea: apirilak 28.

• "Teruelgo Diputazioak eta Grupo Endesak" bost beken deia egiten duten Arte Plastikoetan. Epea: ekainak 30.

Lana

- Leioako Udalak lanpostu hauen deialdia egin du: gizarte laguntzaile bat, administrari laguntzaile bat, atezain bi, kultura laguntzaile bat, igeltsero bat, zabor bilketarako peoi bat eta liburutegiko laguntzaile bi. Epea: martxoak 23.
- Muruetako Udalak, peoi

lanpostu bi kaleratu ditu. Epea: martxoak 23.

Lehiaketak

- "Errenteriako Hiriko Komikien VII. Lehiaketa". 16-30 urte bitarteko gazteek parte hartu ahal izango dute. Pertsonaiek jatorrizkoak eta argitaratu gabek izan beharko dute. Epea: apirilak 28.
- Eusko Ikaskuntza, Euskadiko Kutzaren "Giza eta Gizarte Zientzien" Saria. Ikerketalana E.A.E, Nafarroako Foru Elkartearen zein Iparraldeko hiru lurraldeetako edozeinetan burutzen duten ikerlari eta zientzialariei zuzendua dago. Epea: apirilak 30.

"Hain zegoen bere liburuetan murgilduta gazte sasijakintsu hura, ezen apur bat bizkortzea agindu nion nere buruari".

**PAUL LÉAUTAUD
"LE PETIT AMI"**



**Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65**

Elektragailuetan marka guztiak • Armairu enpotratuak, ate korrigarriekin

DeLonghi
 ALTZARIAK
 5 urteko garantiaz!

Legarre Pabiloia, z/g
 Gipuzkoa Etorbidea
 Tfnoa: 79 01 92

UDALAITZ, S. A.

SEAT

Audi



Merezi duzun
 segurtasuna!

Musakola auzoa, z/g. Tfnoa: 90 18 80 / 79 21 25 ARRASATE



OPEL VECTRA BERRIA

merit

McCANN



GUTXIK EMATEN DUTE HAINBESTE HAIN GUTXIREN TRUKE.

115 CVko 2.0i alemaniar batek adina, Opel injinerutza Alemaniar ospetsuak indartua. Zuk merezi bezalako ekipamendua: **Direkzio lagundua, pretentsoredun segurutasun uhalak, alboetako segurtasun-barrak, itxitura zentralizatua, leihoak isteko elektricoa, atzekaldeko jarlekuetan ere burua etzatekoa, antena elektrikoa...** ikusteko zein berba egiteko hainbeste emango dizu, ezin zara Opel Banatzailearengana probatzera etorri barik geratu. Izan ere, sekula ez duzu hain gutxiren truke hainbeste jaso.

OPEL VECTRA MERIT BERRIA. BERE PREZIOA MERITU HUTSA DA.

OPEL

Z U R E Z A I N G A U D E

10^o
URTEURRENA

TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)
Zerbitzu Oficiala ARRASATEn

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3.(Edif. Escatu). Tfnoak: 79 05 86

OPEL BANATZAILE OFICIALAK, ESPERIENTZIAZ ONENAK.